

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4506

*AGINDUA, 2022ko urriaren 5ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira Fundación Archivo de la Casa Zavala Fundazioa izeneko fundazioaren azkentzeko eta likidatzeko erabakiak.*

2022ko abuztuaren 12an, eskabide bat aurkeztu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Archivo de la Casa Zavala izeneko fundazioaren azkentzeko eta likidatzeko erabakiak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Horrekin batera administrazio espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Azkentzeko eta likidatzeko erabakia fundazioaren patronatuak 2021eko abenduaren 21ean hartu zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak berretsi zuen 2022ko urriaren 4ko txostenaren bidez.

Akordio horiek eta nahitaezko agiri eratorriak eskritura publiko bidez formalizatu ziren, 2022ko uztailaren 27an, Donostian, Fermín Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2.786).

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datuak eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40., 41., 42., 43. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 48. eta 49. artikuluetan aurreikusitako baldintzak.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación Archivo de la Casa Zavala izeneko fundazioaren azkentzeko eta likidatzeko erabakiak, agindu honen datarekin, eta 2022ko uztailaren 27an, Donostian, Fermín Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean egiletsitako azkentze- eta likidazio-eskrituran (protokolo-zenbakia: 2.786) aurreikusitako baldintzetan, fundazioari buruzko erregistro-idazpenak ezeztatzeko.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 5a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.